Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko otsailaren 20a, asteazkena — 35 — Miércoles, a 20 de febrero de 2019

## GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*2/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituena.*

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «2/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituena»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2019ko otsailaren 11.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia. (888)

HITZAURREA

Antzinaroaz geroztik, mezenasgoaren instituzioak gizartean kulturaren loraldia eragiteko balio du. Foru arau honen bidez, balio hori aitortu nahi da, bai eta gipuzkoarren artean sustatzen lagundu ere. Horretarako, hitzaurre honetan agerian jartzen dira foru araua egiteko arrazoiak eta hura oinarritzeko uste sakonak.

Lehen ustea da Kultura gizarte baten aberastasunaren zutabe nagusietako bat dela. Batetik, aberastasun materialaz ari gara, lurraldeko ekonomiari ekarpen handia egiten baitio. Bestetik, aberastasun demokratikoaz ari gara, Kulturaren bitartez areagotzen baitira bai pentsaera kritikoa eta bai herritarrek gai publikoetan arretaz parte hartzea. Eta, azkenik, noski, Kulturak ikuspuntu materialetik neurtu ezinekoa den aberastasuna ematen dio gizarteari. Izan ere, Kulturak harremanetan jartzen gaitu edertasunarekin, jakin-min etikoarekin eta munduaren zabaltasunarekin.

Horiek horrela, foru arau honek aitortu egiten du erakundeen eginkizun nagusi bat dela Kultura sustatzea eta sostengatzea haien eskumen eta baliabide guztiak erabilita. Aldi berean, baina, aitortu egiten du eginkizun hori betetzean, erakundeak ez direla bakarrik aritu behar, gipuzkoarren partaidetza beharrezkoa baita.

Beharrezkoa da, beraz, Gipuzkoako herritarrekin partekatzea ez bakarrik Kultura sostengatzeko erantzukizuna –haien diru ekarpenen bitartez–, bai eta kultura hori erabaki eta orientatzeko gaitasuna ere, haiek babestuko dituzten arte eta kultura proiektuen bidez. Azken finean, foru arau honen asmoa da gure erakundeek eta herritarrek protagonismo partekatua izatea Kulturak dakarren aparteko eginkizun hori betetzeko garaian.

Iraganean, jadanik hainbat arau emanak ziren, interes orokorreko jarduerak egitean ekimen pribatua sustatzeko asmoz. Hori horrela, Gipuzkoan ikuspuntu orokor batekin eta helburu horrekin onartutako lehen xedapena martxoaren 24ko 5/1995 Foru Araua izan zen, Ekimen pribatuari interes orokorreko jardueretan parte hartzeagatik zerga-pizgarriak ematen dizkiona.

### DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

*Norma Foral 2/2019, de 11 de febrero, de incentivos fiscales al mecenazgo cultural en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

EL DIPUTADO GENERAL DE GIPUZKOA

Hago saber que las Juntas Generales de Gipuzkoa han aprobado y yo promulgo y ordeno la publicación de la siguiente «Norma Foral 2/2019, de 11 de febrero, de incentivos fiscales al mecenazgo cultural en el Territorio Histórico de Gipuzkoa», a los efectos de que todos los ciudadanos y ciudadanas, particulares y autoridades a quienes sea de aplicación, la guarden y hagan guardarla.

San Sebastián, a 11 de febrero de 2019.—El diputado general, Markel Olano Arrese. (888)

PREÁMBULO

La institución del mecenazgo es, desde la Antigüedad, un valioso aliado del florecimiento cultural de una sociedad. La presente norma foral quiere reconocer ese valor y contribuir a fomentarlo entre la ciudadanía guipuzcoana. Para ello, el presente preámbulo expone los motivos que la impulsan y las convicciones profundas que la sustentan.

La primera convicción es que la Cultura constituye uno de los pilares fundamentales de la riqueza de una sociedad. Riqueza material, por su contribución, no desdeñable, al desarrollo de la economía del territorio. Riqueza democrática, porque es a través de la Cultura como se fortalece el pensamiento crítico, la participación lúcida de la ciudadanía en los asuntos públicos. Y desde luego la Cultura aporta a la sociedad esa riqueza no cuantificable en términos materiales pero sí de bienestar personal. Porque la Cultura nos pone en contacto con la belleza, la interrogación ética, la anchura del mundo.

Esta norma foral reconoce, por todo lo expuesto, que es una tarea fundamental de las instituciones fomentar y sostener la Cultura con todas las competencias y recursos a su alcance. Pero reconoce también, que en esa tarea las instituciones no pueden ni deben estar solas; que necesitan de la participación de la ciudadanía guipuzcoana.

Compartir con la ciudadanía de Gipuzkoa no sólo la responsabilidad de sostenerla, con sus aportaciones económicas, sino también la capacidad de decidirla y de orientarla, a través de los proyectos artísticos y culturales que decidan apoyar. Esta norma foral aspira, en definitiva, a que esa formidable tarea que representa la Cultura se realice desde un protagonismo compartido entre nuestras instituciones y nuestra ciudadanía.

En el pasado, ya se habían adoptado disposiciones tendentes a estimular la iniciativa privada en la realización de actividades de interés general. Así, la primera disposición aprobada en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con una visión global y con tal objeto, fue la Norma Foral 5/1995, de 24 de marzo, de Incentivos Fiscales a la Participación Privada en Actividades de Interés General.

EK\CV GAO-I-2019-00888

Geroago, foru arau horren ordez apirilaren 7ko 3/2004 Foru Araua onartu zen, irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoa. Arau horrek erregulazio modernoago bat ezarri zuen, hiru helburu hauekin: haren eremuan sartzen diren entitateei segurtasun juridikoa ematea, entitate horiek malgutasunez bete ahal izatea erregimena aplikatzeko ezarritako baldintzak, eta interes orokorreko jardueretara gizarteak zuzendutako ekarpenen zerga tratamendua hobetzea.

Dena den, foru arau honek urrutiago joan behar du, baliabide eta protagonismo partekatuen espiritu berriarekin bat egingo badu, hitzaurre honen lehen zatian adierazitakoari jarraituz. Horretarako, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua eta Ogasun eta Finantza Departamentua batera jardun ondoren, xedapen hau egin dute, maiatzaren 23ko 12/2002 Legaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunak ematen dizkien eskumenetan oinarrituta. Xedapen honen bidez, hura aplikatzeko behar diren kontzeptuak garatzen dira, jarraian azaltzen den moduan.

Lehendabizi, «kultura mezenasgoaren» kontzeptu bera garatzen da. Halakotzat hartzen da interes sozialekoak deklaratutako kultur proiektu edo jarduerak egitean ekimen pribatuak parte hartzea. Hori bada, funtsezkoa da zehaztea zeintzuk diren kultur proiektu eta jarduera horiek, hala adierazten baititu foru arauak.

Era berean, «interes sozialaren» kontzeptua garatzen da. Izan ere, mezenasgoarekin lotu daitezkeen kultur proiektu edo jardueren beharkizun moduan ezartzen da. Interes hori Gipuzkoako Foru Aldundian kultura arloko eskumena duen departamentuak baloratu eta finkatuko du, edo, bestela, martxoaren 8ko 4/2016 Foru Dekretuaren bidez sortu eta araututako Gipuzkoako Arteen eta Kulturaren Kontseiluak.

Foru arauaren bidez, zehaztu egiten da zer pertsona eta entitate diren kultura mezenasgoaren onuradunak, hau da, nori zuzendu ahal zaizkion interes sozialeko kultur proiektu edo jarduerak egiteko pizgarri fiskalak jaso dituzten ekarpenak. A sensu contrario ulertu behar da kultur proiektu edo jardueretarako egiten diren ekarpen guztiek ez dutela zertan merezi foru arauan adierazitako zerga onura jasotzea.

Azkenik, ezarri egiten da zeintzuk diren kultur proiektu eta jarduerei egiten zaizkien ekarpenei, dohaintzei edo legatuei aplikagarri zaizkien zerga-pizgarriak.

Testuan aipatzen diren kontzeptuak eta bertan aurreikusita dauden pizgarriak dira foru arauaren funtsa, zeinak egitura hau erakusten duen: hiru kapitulu, hogei artikulu, hiru xedapen gehigarri eta azken lau xedapen.

Gipuzkoako lurraldean tradizio handia du jarduera eta ekimen filantropikoei eta humanitarioei baliabide pribatuak emateak. Halere, gure kultur mezenasgoa ez da hain indartsua. Foru arau honek indar hori eman nahi dio, hitzaurre honetan aipatutako arrazoi guztiengatik, eta espero du norabide horretan aurrera egiteko tresna erabakigarria izatea.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua.*

1. Foru arau honen xedea da pertsona fisiko edo juridikoek eta martxoaren 8ko 2/2005 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatutako nortasun juridikorik gabeko entitateek egiten duten kultur mezenasgoa sustatzea arauan bertan onartzen diren eta mezenasgo horri aplikatuko zaizkion zerga-pizgarrien bitartez.

Dicha norma foral fue sustituida por la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo, una regulación más moderna, con los objetivos de ofrecer seguridad jurídica a las entidades integradas en su ámbito, flexibilizar las condiciones a cumplir por las mismas para la aplicación del régimen y mejorar el tratamiento fiscal aplicable a las aportaciones sociales destinadas a la realización de actividades de interés general.

Pero la presente norma foral necesita ir más lejos para desarrollar ese nuevo espíritu de recursos y protagonismos compartidos, expresado en la primera parte de este preámbulo. Para ello, los Departamentos de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes, y de Hacienda y Finanzas, en una labor conjunta, han elaborado la presente disposición, sobre la base de las competencias que les otorga el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo. Esta disposición desarrolla los conceptos necesarios a su aplicación, que a continuación se detallan.

En primer lugar el concepto mismo de «mecenazgo cultural», entendiéndose como tal la participación privada en la realización de proyectos o actividades culturales declarados de interés social. Resulta pues fundamental determinar cuáles son esos proyectos y actividades culturales, aspectos que aborda la norma foral.

También, el concepto de «interés social», que se establece como requisito de los proyectos o actividades culturales susceptibles de mecenazgo, y que será valorado y fijado por el departamento competente en materia de cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, bien a través de la Dirección General de Cultura o bien a través del Consejo de las Artes y de la Cultura de Gipuzkoa, creado y regulado por el Decreto Foral 4/2016, de 8 de marzo.

La norma determina, así mismo, qué personas y entidades tienen la consideración de beneficiarias del mecenazgo cultural, o lo que es lo mismo, a quienes pueden destinarse las aportaciones incentivadas fiscalmente para la realización de proyectos o actividades culturales de interés social; entendiéndose, a sensu contrario, que no toda aportación para proyectos o actividades culturales será merecedora del beneficio fiscal que la norma foral contempla.

Se establecen, por último, los incentivos fiscales aplicables a las aportaciones, donaciones o legados que se efectúen a los proyectos y actividades culturales antes mencionados.

Tanto los conceptos como los incentivos previstos constituyen el fundamento de la norma foral, cuya regulación se desarrolla en tres capítulos, veinte artículos, tres disposiciones adicionales y cuatro disposiciones finales.

El territorio de Gipuzkoa tiene una fuerte tradición de aportación de recursos privados a actividades e iniciativas filantrópicas e humanitarias. Pero nuestra tradición de mecenazgo cultural carece de esa fortaleza. La presente norma foral aspira a dársela, por todas las razones recogidas en el presente preámbulo; y confía en convertirse en un instrumento decisivo para avanzar en esa dirección.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.*

1. Es objeto de la presente norma foral el fomento del mecenazgo cultural realizado por las personas físicas o jurídicas y entidades sin personalidad jurídica a las que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, a través de la aprobación de incentivos fiscales aplicables al mismo.

EK\CV GAO-I-2019-00888

2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak, eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 10eko 16/2014 Foru Arauak 2. artikuluan ezarritakoagatik Gipuzkoako zerga araudiaren menpe dauden zergadunei aplikatuko zaie foru arau honetan xedatutakoa.

*2. artikulua. Kultur mezenasgoaren kontzeptua.*

1. Foru arau honen ondorioetarako, kultur mezenasgotzat hartzen da kultur mezenasgoa jasotzen duten entitateek garatutako jarduera edo proiektuetan edo Gipuzkoako Foru Aldundiak interes sozialekotzat hartutakoetan parte hartze pribatua izatea.

2. Kultur proiektu edo jardueratzat hartzen dira arlo hauekin erlazionatutakoak:

a) Zinematografia, ikus-entzunezko arteak eta multimedia arteak.

b) Arte eszenikoak, musika, dantza, antzerkia eta zirkoa.

c) Ikusizko arteak: arte plastikoak edo arte ederrak, argazkilaritza eta diseinua.

d) Liburua eta irakurketa, literatur argitalpenak eta argitalpen fonografiko eta zinematografikoak, edozein formatu edo euskarritan.

e) Gipuzkoako kultur ondare material eta ez-materiala ikertu, dokumentatu, kontserbatu, zaharberritu, berreskuratu, zabaldu eta sustatzea, Gipuzkoako hizkuntza aniztasunari bereziki erreparatuta.

3. Foru arau honen ondorioetarako, honako hauek ez dira hartuko kultur proiektu edo jardueratzat:

a) Argitaletxe jakin baten liburu eta argitalpen kulturalak sustatzea, eta, oro har, liburu eta aldizkariak editatzea jarduera nagusi duten entitateek horien aurkezpena egitea.

b) Aisiaren eta denbora librearen okupazioa nahiz gazteria xede dituztenak.

c) Jai programak eta erritu izaerakoak.

d) Azoka tematikoen antolaketa.

e) Baserri giroko azokak eta lehiaketa edo jarduera gastronomikoak.

f) Ikastaro, mintegi eta antzekoetan parte hartzea.

g) Ekipamenduak eta material ez-suntsikorra erosteko eta lokalak egokitzeko inbertsioak.

Orobat, edozein motatako ekitaldi edo antzezpenen erreprodukzio hutsak diren ikus-entzunezko obrak ere ez dira hartuko kultur proiektutzat.

4. Erregelamenduz garatu ahal izango dira kultur proiektu edo jardueren baldintzak eta/edo berezitasunak, baita proiektu edo jarduera horiek halakotzat ez hartzeko kasuak ere.

*3. artikulua. Kultur mezenasgoaren modalitateak.*

Kultur mezenasgoa gauzatzeko, hiru modalitate erabil daitezke:

a) Dohaintzak eta legatuak.

b) Erabilera maileguak edo komodatua.

c) Lankidetza enpresarialeko hitzarmenak, foru arau honen 13. artikuluan aipatuak.

2. Lo dispuesto en la presente norma foral será aplicable a los contribuyentes a los que resulte de aplicación la normativa tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en virtud de lo dispuesto en el artículo 2 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el artículo 2 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa y en el artículo 2 de la Norma Foral 16/2014, de 10 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de No Residentes.

*Artículo 2. Consideración de mecenazgo cultural.*

1. Tendrá la consideración de mecenazgo cultural, a los efectos de la presente norma foral, la participación privada en la realización de actividades o proyectos culturales que sean desarrollados por determinadas entidades destinatarias del mecenazgo cultural o en la realización de actividades o proyectos declarados de interés social por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

2. Se consideran proyectos o actividades culturales los relacionados con:

a) La cinematografía, las artes audiovisuales y las artes multimedia.

b) Las artes escénicas, la música, la danza, el teatro y el circo.

c) Las artes visuales: artes plásticas o bellas artes, la fotografía y el diseño.

d) El libro y la lectura y las ediciones literarias, fonográficas y cinematográficas en cualquier formato o soporte.

e) La investigación, documentación, conservación, restauración, recuperación, difusión y promoción del patrimonio cultural material e inmaterial de Gipuzkoa, atendiendo especialmente a la diversidad lingüística de Gipuzkoa.

3. A los efectos de esta norma foral, no se consideran proyectos o actividades culturales, los siguientes:

a) La de promoción de libros y publicaciones culturales de una editorial específica o, en general, los presentados por entidades cuya actividad principal consista en la edición de libros y revistas.

b) Las dirigidas a la ocupación del ocio, tiempo libre y juventud.

c) Los programas festivos y de carácter ritual.

d) La organización de mercados temáticos.

e) Las ferias agrícolas y los concursos o actividades de carácter gastronómico.

f) La participación en cursos, seminarios o similares.

g) Las inversiones en equipamientos, material no fungible y acondicionamiento de locales.

Así mismo, no se considerarán proyectos culturales las obras audiovisuales que resulten meras reproducciones de acontecimientos o representaciones de cualquier índole.

4. Reglamentariamente se podrán desarrollar requisitos y/o especificidades de los proyectos o actividades culturales, así como supuestos para su no consideración como tales.

*Artículo 3. Modalidades de mecenazgo cultural.*

El mecenazgo cultural podrá realizarse mediante las siguientes modalidades:

a) Donaciones y legados.

b) Préstamos de uso o comodato.

c) Convenios de colaboración empresarial previstos en el artículo 13 de la presente norma foral.

EK\CV GAO-I-2019-00888

*4. artikulua. Kultur mezenasgoaren pertsona eta entitate onuradunak.*

Foru arau honen ondorioetarako, Gipuzkoako Lurralde Historikorako interes sozialeko jarduerak edo programak garatzen dituzten pertsona eta entitate hauek izan daitezke kultur mezenasgoaren onuradunak:

a) Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Administrazioko entitateak, bai eta administrazio horiei lotuta dauden edo haien menpekoak diren organismo autonomoak eta zuzenbide publikoko entitateak ere, kulturaren esparruan jarduten dutenean.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta Estatuko Administrazioa, bai eta administrazio horiei lotuta dauden edo haien menpekoak diren organismo autonomoak eta zuzenbide publikoko entitateak ere, kultur jarduerak edo programak garatzen dituztenean.

c) Euskaltzaindia, Espainiako Institutua eta institutu horretan integratuta dauden errege akademiak.

d) Eusko Ikaskuntza, eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea.

e) Irabazi-asmorik gabeko fundazio eta elkarteak, Euskal Autonomia Erkidegoko kasuan kasuko erregistroan inskribatuak, kultur jarduerak edo programak garatzen dituztenean.

f) Zerga egoitza Gipuzkoan duten pertsona fisikoak, jarduera artistikoak ohikotasunez gauzatzen dituztenean, baldin eta haien negozio zifraren zenbateko garbia ez bada izan aurreko urtean 200.000 eurotik gorakoa.

Ondorio horietarako, honako hauek dira jarduera artistikoak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu Bategina onartzen duen apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailean ezarritakoarekin bat:

— Bigarren sekzioan (lanbide jarduerak), 86. multzoko 861. eta 862. taldeetan sartutakoak.

— Hirugarren sekzioko (jarduera artistikoak) 01., 02. eta 03. multzoetan sartutakoak.

Foru arau honetan ezarritakoaren ondorioetarako, jarduera artistikoak garatzen dituzten pertsona fisikoak ez dira hartuko kultur mezenasgoaren onuraduntzat, jasotzen dituzten mezenasgo modalitateei dagokienez, mezenasgo hori hauetako batek egina bada: ezkontideak, maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteko kideak, hirugarren gradura bitarteko aurreko, ondorengo edo alboko ahaideek –odolkidetasunezkoak, ezkontza bidezkoak edo izatezko bikotetik eratorritakoak–, edo pertsona fisiko horrekin batera errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate bateko kide direnek.

Orobat, jarduera artistikoak egiten dituzten pertsona fisikoak ez dira hartuko kultur mezenasgoaren onuraduntzat sozietateen gaineko zergaren zergadunek egindako mezenasgo modalitateei dagokienez, baldin eta jarduera artistikoa egiten duen pertsona eta dohaintza edo ekarpena egiten duen entitatea pertsona lotuak badira sozietateen gaineko zergaren araudiarekin bat.

II. KAPITULUA

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKORAKO INTERES SOZIALEKOTZAT HARTZEA

*5. artikulua. Gipuzkoako Lurralde Historikorako interes soziala.*

1. Interes sozialekotzat hartuko dira, berariazko deklaraziorik egin behar izan gabe, kultur proiektu edo jarduera hauek:

*Artículo 4. Personas y entidades destinatarias del mecenazgo cultural.*

Tendrán la consideración de destinatarias del mecenazgo cultural, a efectos de la presente norma foral, las siguientes personas y entidades que desarrollen actividades o proyectos de interés social para el Territorio Histórico de Gipuzkoa:

a) La Diputación Foral de Gipuzkoa y las entidades que integran la Administración Local del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como los organismos autónomos y las entidades de derecho público vinculadas o dependientes de las citadas Administraciones, que desarrollen su actividad en el ámbito de la cultura.

b) La Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y la Administración del Estado, así como los organismos autónomos y las entidades de derecho público, vinculadas o dependientes de las citadas Administraciones, que desarrollen actividades o programas en el ámbito de la cultura.

c) Euskaltzaindia-Real Academia de la Lengua Vasca, así como el Instituto de España y las Reales Academias integradas en el mismo.

d) Eusko Ikaskuntza Sociedad de Estudios Vascos y Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea-Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

e) Fundaciones y asociaciones sin ánimo de lucro, inscritas en el registro correspondiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que desarrollen actividades o programas en el ámbito de la cultura.

f) Las personas físicas con domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Gipuzkoa que de forma habitual desarrollen actividades artísticas y cuyo importe neto de la cifra de negocios no haya superado los 200.000 euros en el año inmediatamente anterior.

A estos efectos, se consideran actividades artísticas, con arreglo a lo previsto en Decreto Foral Normativo 1/1993, de 20 de abril, por el que se apruebe el Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, las siguientes:

— Las incluidas en la sección segunda (actividades profesionales), agrupación 86, grupos 861 y 862.

— Las incluidas en la sección tercera (actividades artísticas), agrupaciones 01, 02 y 03.

No se considerarán destinatarias del mecenazgo cultural, a efectos de la presente norma foral, las personas físicas que desarrollen actividades artísticas en relación con las modalidades de mecenazgo recibidas de su cónyuge, pareja de hecho constituidas conforme a lo dispuesto en la Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho, ascendientes, descendientes o colaterales hasta tercer grado, por consanguinidad, afinidad o por la relación derivada de la pareja de hecho, o de quienes formen parte junto con la citada persona física de una entidad en régimen de atribución de rentas.

Del mismo modo, tampoco se considerarán destinatarias del mecenazgo cultural las personas físicas que desarrollen actividades artísticas en relación con las modalidades de mecenazgo recibidas de las y los contribuyentes del impuesto sobre sociedades cuando la persona que desarrolle la actividad artística y la entidad donante o aportante tengan la consideración de vinculadas conforme a la normativa del impuesto sobre sociedades.

CAPÍTULO II

DECLARACIÓN DE INTERÉS SOCIAL PARA EL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

*Artículo 5. Consideración de interés social para el Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

1. Se considerarán de interés social, sin necesidad de declaración expresa, los siguientes proyectos o actividades culturales:

EK\CV GAO-I-2019-00888

a) Gipuzkoako Foru Aldundiak eta aurreko 4. artikuluko c) eta d) letretan aipatu diren entitateek antolatutakoak.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiak edo kultur gaietan eskudun den Aldundiko departamentuak hitzarmen edo diru-laguntzen bidez sustatu edo babesten dituenak, 4. artikuluan aurreikusitako pertsona edo entitate onuradunek eginak badira.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, kultur mezenasgoa jaso nahi duten pertsona edo entitateek eskatu behar dute antolatu edo garatuko dituzten kultur proiektu edo jarduerak berariaz hartu daitezela interes sozialekotzat, kultur mezenasgoaren onuradun izate aldera.

3. Gipuzkoako Foru Aldundian kultura alorreko eskumena duen organoari dagokio deklaratzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Administrazioko entitateek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Estatuko Administrazioak, eta administrazio horiei lotuta dauden edo haien menpekoak diren organismo autonomoek eta zuzenbide publikoko entitateek antolatutako kultur proiektu edo jarduerak interes sozialekoak direla.

Apartatu honetan jasotakoaren ondorioetarako, interesdunek eskaera zuzendu behar diote Gipuzkoako Foru Aldundian kultura alorreko eskumena den departamentuari, eta jarduerak edo programak ez badatoz bat foru arau honen 2.2 artikuluan adierazitakoekin, departamentu horrek interes sozialeko deklarazioa ukatu dezake, modu arrazoituan beti.

Proiektu edo jarduera horien interes sozialeko deklarazioa eskatzeko eta deklarazio hori ukatzeko, erregelamenduz ezarriko diren prozedurari eta baldintzei jarraituko zaie.

4. Gipuzkoako Arteen eta Kulturaren Kontseiluak, martxoaren 8ko 4/2016 Foru Dekretuaren bidez sortu eta arautzen denak, ebaluatuko ditu aurreko apartatuan sartu ez diren proiektu eta jarduerak interes sozialekotzat hartzeko eskaerak, irizpide hauek kontuan hartuta:

a) Kultur jardueren garrantzia eta eragin soziala.

b) Proiektu eta jarduerek Gipuzkoako kultur ondare material zein ez-materiala ikertu, kontserbatu eta zabaltzeko duten eragina, hizkuntza aniztasunari bereziki erreparatuta.

c) Sorkuntza artistikoa sustatzeko eta sortzaile berriei laguntzeko eragina.

d) Prestakuntza artistiko eta kulturalarekin lotutako balioa eta interesa.

e) Herritarren parte hartzea sustatzeko balioa eta interesa, IKTei arreta berezia eskainiz.

f) Gipuzkoako Lurralde Historikoko arte eta kultur balioak kanpora zabaltzeko balioa eta interesa.

g) Arte eta zientzien zabalkunderako lagungarri diren kultur inbertsioak egiteko balioa eta interesa.

h) Kulturaren esparruko lengoaia berritzaileak ikertu eta jorratzeko jarrera.

i) Gipuzkoako Lurralde Historikoko kultura kontserbatu, sustatu eta garatzearekin zerikusia duen beste edozein irizpide.

Oinarrizko irizpide gisa hartuko da, halaber, zer erlazio dagoen proiektu edo jarduerak duen aurrekontuaren eta aurreko letren arabera sortzen den eraginaren artean.

5. Programa edo jarduera interes sozialekotzat hartzeko eskaera ebaluatu ondoren, Gipuzkoako Arteen eta Kulturaren Kontseiluak interes soziala deklaratzeko edo ukatzeko proposamena helaraziko dio Gipuzkoako Foru Aldundian kultura alo-

a) Los organizados por la Diputación Foral de Gipuzkoa y las entidades incluidas en las letras c) y d) del artículo 4 anterior.

b) Los que promueva o apoye la Diputación Foral de Gipuzkoa o su departamento competente en materia de cultura, por medio de convenios o subvenciones, y sean realizados por alguna o algunas de las personas o entidades destinatarias del mecenazgo cultural previstas en el artículo 4 anterior.

2. A salvo lo dispuesto en el apartado anterior, las personas o entidades destinatarias del mecenazgo cultural deberán solicitar la declaración expresa de interés social de los proyectos o actividades culturales que organicen o desarrollen, a los efectos de ser destinatarias de mecenazgo cultural.

3. Corresponderá al órgano competente en materia de cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa la declaración del interés social de los proyectos o actividades culturales organizadas por las entidades que integran la Administración Local del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la del Estado, y los organismos autónomos y las entidades de derecho público, vinculados o dependientes de las citadas Administraciones.

A los efectos previstos en este apartado, las personas o entidades deberán dirigir la solicitud al departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa competente en materia de cultura, que podrá denegar motivadamente la consideración de interés social en el caso de que no se correspondan con los señalados en el apartado 2 del artículo 2 de la presente norma foral.

Tanto la solicitud como la denegación de la condición de interés social de tales proyectos o actividades habrán de realizarse con arreglo al procedimiento y las condiciones que al efecto se aprueben reglamentariamente.

4. Corresponde al Consejo de las Artes y de la Cultura de Gipuzkoa creado y regulado por el Decreto Foral 4/2016, de 8 de marzo, evaluar las solicitudes de declaración de interés social no incluidas en el apartado anterior, de acuerdo con los siguientes criterios:

a) Relevancia y repercusión social de las actividades culturales.

b) Incidencia de los proyectos y las actividades en la investigación, conservación y difusión del patrimonio cultural, material e inmaterial, de Gipuzkoa, atendiendo especialmente a su diversidad lingüística.

c) Incidencia en el fomento de la creación artística y en el apoyo a los nuevos creadores.

d) Valor e interés en relación con la formación artística y cultural.

e) Valor e interés en el fomento de la participación de la ciudadanía, con especial atención a las TIC.

f) Valor e interés en relación con la promoción exterior de los valores artísticos y culturales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

g) Valor e interés en relación con la realización de inversiones culturales que contribuyan a la difusión de las artes y las ciencias.

h) Actitud investigadora y exploración de lenguajes innovadores en el ámbito cultural.

i) Cualesquiera otros criterios que guarden relación con la conservación, promoción y desarrollo cultural del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

También se tendrá en cuenta como criterio básico, la relación entre el presupuesto del proyecto o actividad y el impacto generado de acuerdo con las letras anteriores.

5. Efectuada la evaluación de la solicitud de declaración de interés social, el Consejo de las Artes y de la Cultura de Gipuzkoa elevará la correspondiente propuesta de declaración o denegación de la condición de interés social al departamento

rreko eskumena duen departamentuari. Alabaina, proiektu edo jardueren kostua 1.000.000 eurokoa edo handiagoa denean, interes sozialeko deklarazioa Diputatuen Kontseiluak baimendu beharko du aldez aurretik.

Ebazpena ezezkoa bada, arrazoitu egin beharko da, aurreko 4. apartatuan ezarritako irizpideei erreferentzia eginez. Ezezko ebazpena emateko arrazoia izango da, besteak beste, kultur mezenasgoaren pertsona edo entitate onuradunak ez betetzea foru arau honetan ezarritako betebehar formalak, pertsona edo entitate horri lehenagotik interes sozialeko deklaratu zaizkion proiektu edo jarduerei dagokienez.

6. Ekitaldia amaitu eta hurrengo urteko otsaila bukatu baino lehen, kultura alorreko eskumena duen departamentuak zerrenda bat igorri behar dio Ogasun eta Finantza Departamentuari, bertan adieraziz aurreko urteko zer kultur proiektu edo jarduera hartu behar diren interes sozialekotzat artikulu honetan ezarritakoarekin bat.

Aurrekoa hala izanik ere, kultur mezenasgoaren onuradun diren pertsona edo entitateek foru arau honen 19. artikuluan ezarritako beharkizunak izango dituzte, hala eman beharreko ziurtagiriei nola Ogasun eta Finantza Departamentuari bidali beharreko informazioari dagokienez.

*6. artikulua. Kultur proiektu edo jardueren programa-tipoak interes sozialekotzat hartzea.*

Kultur proiektuak edo jarduerak urtero gauzatzen dituzten entitateek aurreikusten badute hurrengo urteetan izaera eta eduki bereko edo antzeko proiektu edo programak egingo dituztela, interes sozialekotzat kultur jardueren programa-tipo bat hartzeko eskatu ahal izango dute, eta deklarazio horrek programan jasotzen diren kontzeptuekin bat datozen jarduerak hartuko ditu barne. Interes sozialeko deklarazioa egiteko, aurreko artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

## III. KAPITULUA

## KULTUR MEZENASGOAREN ALDEKO ZERGA-PIZGARRIAK

### 1. SEKZIOA. Zerga-pizgarriekin hobaritutako dohaintzak

*7. artikulua. Dohaintzen eta legatuen beharkizunak.*

1. Foru arau honetan aurreikusitako zerga-pizgarriak aplikatzeko eskubidea emango dute 4. artikuluan aipatzen diren pertsona eta entitateen alde egiten diren dohaintza errebokaezin, soil eta hutsek, bai eta haien aldeko «mortis causa» dohaintzek eta legatuek ere, interes sozialeko kultur proiektu edo jarduerak gauzatzeko egiten badira.

2. Dohaintza errebokatuz gero, errebokazioaren zergaldian dohaintza-emaileak ordaindu beharko ditu kendutako kopuruei edo aplikatutako kenkariei dagozkien kuotak, kasuan kasuko berandutze interesak ere barne.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde egiten diren dohaintzen kasuan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ondareari buruzko araudiak dioenari jarraituko zaio beti.

*8. artikulua. Dohaintzen eta legatuen zerga-pizgarriak aplikatzeko oinarria.*

1. Dohaintzak eta legatuak egiteagatik araututako zerga-pizgarriak aplikatzeko oinarria honako hau izango da:

a) Diruzko dohaintza eta legatuetan, haien zenbatekoa.

b) Ondasun edo eskubideen dohaintza eta legatuetan, eskualdaketaren unean zuten kontabilitate balioa edo, horren ezean, ondarearen gaineko zergaren arauen arabera kalkulatutako balioa.

competente en materia de cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa. No obstante, requerirá la previa autorización del Consejo de Gobierno Foral cuando los proyectos o actividades supongan un coste igual o superior a 1.000.000 de euros.

En caso de resolución denegatoria, deberá ser motivada, en referencia a los criterios establecidos en el apartado 4 anterior. Podrá ser causa de resolución denegatoria el incumplimiento por parte de la persona o entidad destinataria del mecenazgo cultural de las obligaciones formales establecidas en la presente norma foral, referidas a proyectos o actividades de la misma persona o entidad destinataria del mecenazgo cultural que previamente hubieran sido declarados de interés social.

6. Antes de la finalización del mes de febrero inmediatamente posterior, el departamento competente en materia de cultura remitirá al Departamento de Hacienda y Finanzas la relación anual de los proyectos o actividades culturales correspondientes al año anterior que, con arreglo a lo establecido en este artículo, han de ser considerados de interés social.

Sin perjuicio de ello, las personas o entidades destinatarias del mecenazgo cultural deberán cumplir los requisitos establecidos en el artículo 19 de la presente norma foral, referidos a la emisión de las certificaciones y al envío de la correspondiente información al Departamento de Hacienda y Finanzas.

*Artículo 6. Declaración de interés social de programas-tipo de proyectos o actividades culturales.*

Las entidades que ejecuten anualmente proyectos o actividades culturales cuya naturaleza y contenido se prevean similares o análogos para años sucesivos, podrán instar la declaración de interés social de un programa-tipo de actividades culturales, que abarcará las actividades encuadrables en los conceptos previstos en él. Para la declaración de interés social se estará a lo dispuesto en el artículo anterior.

## CAPÍTULO III

## INCENTIVOS FISCALES AL MECENAZGO CULTURAL

### SECCIÓN 1.ª Donaciones incentivadas fiscalmente

*Artículo 7. Requisitos de las donaciones y legados.*

1. Darán derecho a aplicar los incentivos fiscales previstos en la presente norma foral las donaciones irrevocables, puras y simples, así como las donaciones «mortis causa» y los legados realizados a favor de las personas y entidades a las que se refiere el artículo 4 para la realización de proyectos o actividades culturales de interés social.

2. En el caso de revocación de la donación, el donante ingresará, en el período impositivo en el que dicha revocación se produzca, las cuotas correspondientes a las cantidades deducidas o a las deducciones aplicadas, con inclusión de los intereses de demora que procedan.

3. Las donaciones efectuadas a la Diputación Foral de Gipuzkoa se sujetarán, en todo caso, a lo previsto en la normativa reguladora del patrimonio del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Artículo 8. Base para la aplicación de los incentivos fiscales por donaciones y legados.*

1. La base para la aplicación de los incentivos fiscales por donaciones y legados realizados será:

a) En las donaciones y legados dinerarios, su importe.

b) En las donaciones y legados de bienes o derechos, el valor contable que tuviesen en el momento de la transmisión y, en su defecto, el valor determinado conforme a las normas del impuesto sobre el patrimonio.

EK\CV GAO-I-2019-00888

c) Ondasun higiezinen gaineko gozamen eskubide erreal bat eratzen den kasuetan, gozamenak irauten duen zergaldi bakoitzean balio katastralari ehuneko 2 aplikatuta ateratzen den urteko zenbatekoa; zergaldi bakoitzean dagokion egun kopuruaren proportzioan zehaztua.

d) Baloreen gaineko gozamen eskubide erreal bat eratzen denean, gozamenak irauten duen zergaldi bakoitzean gozamendunak jasotako dibidendu edo interesen urteko zenbatekoa.

e) Bestelako ondasun eta eskubideen gaineko gozamen eskubide erreal bat eratuz gero, eraketa egindako garaian ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren arauei jarraituz kalkulatutako gozamen balioari ekitaldi bakoitzean diruak duen legezko interesa aplikatuta ateratzen den urteko zenbatekoa.

f) Euskal Kultur Ondarearen parte diren ondasunen dohaintza eta legatuen kasuan, Eusko Jaurlaritzak egindako balorazioa; Espainiako Ondare Historikoaren parte diren ondasunen dohaintza eta legatuen kasuan, Kalifikazio, Balorazio eta Esportazio Batzordeak egindako balorazioa; eta beste autonomia erkidegoetako Ondare Historikoaren parte diren ondasunen dohaintza eta legatuen kasuan, organo eskudunek egindako balorazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako organoek ez badute egin horrelako baloraziorik, balorazioa Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo du.

g) Kalitate bermatuko artelanen dohaintza eta legatuen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundian kultura alorreko eskumena duen departamentuak egindako balorazioa. Departamentu horrek ere egingo du balorazioa ondasunak aldi baterako eta dohain lagatzen direnean, eta, kasu horretan, kenkariaren oinarria kalkulatuko da balorazio horri ehuneko 2ko portzentajea aplikatuta urte oso bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatutako balioa ezingo da izan eskualdatutako ondasun edo eskubideak eskualdaketaren unean merkatuan duen balio normala baino handiagoa.

*9. artikulua. Dohaintzen eta legatuen justifikazioa.*

1. Zerga-pizgarriak aplikatzeko, ezinbestekoa izango da dohaintza edo legatua benetan egin dela frogatzea edo dohaintza jasotzen duen pertsonak edo entitateak luzatutako ziurtagiria aurkeztuta.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den ziurtagirian alderdi hauek jaso beharko dira gutxienez:

a) Izen-abizenak edo sozietate izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai dohaintza-emailearenak bai dohaintza-hartzailearenak.

b) Dohaintza hartzen duen pertsona edo entitatea foru arau honen 4. artikuluan aurreikusitakoen artean dagoela dioen berariazko aipamena.

c) Dohaintzaren data eta zenbatekoa, dirutan egina bada.

d) Dohaintzaren balorazioaren zenbatekoa, dohaintzak diruzkoak ez direnean.

e) Dohaintzak diruzkoak ez badira, dohaintzan emandako ondasuna entregatu dela edo gozamen eskubidea eratu dela frogatzen duen agiri publikoa edo bestelako agiri kautoa.

f) Dohaintza hartzen duen pertsonak edo entitateak dohaintzari emango dion erabilera.

g) Dohaintza errebokaezina dela dioen berariazko aipamena.

3. Legatuak frogatzeko, dagokien oinordetza titulua aurkeztu beharko da.

c) En la constitución de un derecho real de usufructo sobre bienes inmuebles, el importe anual que resulte de aplicar, en cada uno de los períodos impositivos de duración del usufructo, el 2 por ciento al valor catastral, determinándose proporcionalmente al número de días que corresponda en cada período impositivo.

d) En la constitución de un derecho real de usufructo sobre valores, el importe anual de los dividendos o intereses percibidos por el usufructuario en cada uno de los períodos impositivos de duración del usufructo.

e) En la constitución de un derecho real de usufructo sobre otros bienes y derechos, el importe anual resultante de aplicar el interés legal del dinero de cada ejercicio al valor del usufructo determinado en el momento de su constitución conforme a las normas del impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados.

f) En los donativos o donaciones y legados de bienes que formen parte del Patrimonio Cultural Vasco, la valoración efectuada por el Gobierno Vasco, en los donativos o donaciones y legados de bienes que formen parte del Patrimonio Histórico Español, la valoración efectuada por la Junta de Calificación, Valoración y Exportación y en los donativos o donaciones y legados de bienes que formen parte del Patrimonio Histórico de las Comunidades Autónomas, la valoración efectuada por los órganos competentes.

En defecto de valoración efectuada por los órganos mencionados en el párrafo anterior, ésta se realizará por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

g) En los donativos o donaciones y legados de obras de calidad garantizadas, la valoración efectuada por el departamento competente en materia de cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que también procederá a la determinación de la valoración de los bienes que sean objeto de cesión temporal gratuita, en cuyo caso la base de la deducción se determinará mediante la aplicación a aquélla del porcentaje del 2 por ciento por cada período de un año completo.

2. El valor determinado de acuerdo con lo dispuesto en el apartado anterior tendrá como límite máximo el valor normal en el mercado del bien o derecho transmitido en el momento de su transmisión.

*Artículo 9. Justificación de las donaciones y legados.*

1. La aplicación de los incentivos fiscales exigirá la acreditación de la efectividad de la donación mediante certificación expedida por la persona o entidad donataria.

2. La certificación a que hace referencia el apartado anterior deberá contener, al menos, los siguientes extremos:

a) Nombre y apellidos o denominación social y número de identificación fiscal tanto de la persona o entidad donante como de la donataria.

b) Mención expresa de que la persona o entidad donataria se encuentra incluida entre las contempladas en el artículo 4 de la presente norma foral.

c) Fecha e importe de la donación cuando esta sea dineraria.

d) Importe de la valoración de la donación en el supuesto de donaciones no dinerarias.

e) Documento público u otro documento auténtico que acredite la entrega del bien donado, o la constitución del derecho de usufructo, cuando no se trate de donaciones dinerarias.

f) Destino que la persona o entidad donataria dará a la donación.

g) Mención expresa del carácter irrevocable de la donación.

3. Los legados deberán acreditarse con el título sucesorio que los contienen.

EK\CV GAO-I-2019-00888

2. SEKZIOA. Zerga-pizgarriekin hobaritutako erabilera maileguak edo komodatua

*10. artikulua. Erabilera mailegu edo komodatu kengarrien beharkizunak.*

Foru arau honetan aurreikusitako kenkari eta murriztapenak egiteko eskubidea emango du Euskal Kultur Ondarearen parte diren ondasunen, kalitate bermatuko artelanen, eta ondasun higiezinen erabilera maileguak edo komodatuak egiteak interes sozialekotzat hartutako kultur proiektu edo jarduerak gauzatzeko.

*11. artikulua. Erabilera mailegu edo komodatuengatik arautatako zerga-pizgarriak aplikatzeko oinarria.*

Oinarria, foru arau honen 8. artikuluaren arabera egindako balorazioari maileguak irauten duen zergaldi bakoitzean 100eko 2 aplikatuta ateratzen den urteko zenbatekoa izango da, zergaldi bakoitzean dagokion egun kopuruaren proportzioan zehaztua.

Proiektu edo jarduerak egiteko erabiliko diren ondasun higiezinen kasuan, 100eko 2ko portzentajea balio katastralari aplikatuko zaio, zergaldi bakoitzean dagokion egun kopuruaren proportzioan.

*12. artikulua. Erabilera maileguen edo komodatuen justifikazioa.*

1. Zerga-pizgarriak aplikatzeko, ezinbestekoa izango da erabilera mailegua edo komodatua benetan egin dela frogatzea komodatudunak luzatutako ziurtagiria aurkeztuta.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den ziurtagirian alderdi hauek jaso beharko dira gutxienez:

a) Izen-abizenak edo sozietate izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai komodatugilearenak bai komodatudunarenak.

b) Komodatuduna foru arau honen 4. artikuluan aurreikusitakoen artean dagoela dioen berariazko aipamena.

c) Ondasuna noiz entregatu zen eta erabilera maileguak edo komodatuak zenbat iraungo duen.

d) Erabilera maileguaren edo komodatuaren balorazioaren zenbatekoa.

e) Erabilera mailegua edo komodatua eratuta dagoela frogatzen duen agiri publikoa edo bestelako agiri kautoa.

f) Komodatudunak erabilera maileguaren edo komodatuaren xede den ondasunari emango dion erabilera.

3. SEKZIOA. Zerga-pizgarriekin hobaritutako lankidetza enpresarialeko hitzarmenak

*13. artikulua. Lankidetza enpresarialeko hitzarmenak interes sozialeko proiektu edo jarduer etan.*

1. Interes sozialeko kultur proiektu edo jardueren kasuan lankidetza enpresarialeko hitzarmenak egiten direla ulertuko da foru arau honen 4. artikuluan aipatzen diren pertsonek edo entitateek kolaboratzailearen parte hartzea edozein bitartez zabaltzeko konpromisoa idatziz hartzen dutenean, interes sozialekotzat hartutako proiektu edo jarduerak egiteko diru-laguntza baten truke edo ekonomikoki balora daitekeen laguntza baten truke.

2. Lankidetza enpresarialeko hitzarmenengatik arautatako zerga-pizgarriak aplikatzeko oinarria foru arau honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatuko da.

3. Artikulu honetan definitutako lankidetza enpresarialeko hitzarmenen esparruan kolaboratzailearen partaidetza zabaltzea ez da zerbitzu prestazio bat.

SECCIÓN 2.ª Préstamos de uso o comodato incentivados fiscalmente

*Artículo 10. Requisitos de los préstamos de uso o comodato deducibles.*

Darán derecho a practicar las deducciones y reducciones previstas en esta norma foral el préstamo de uso o comodato de bienes que formen parte del Patrimonio Cultural Vasco, o de obras de arte de calidad garantizada, así como de inmuebles para la realización de proyectos o actividades culturales declaradas de interés social.

*Artículo 11. Base para la aplicación de los incentivos fiscales por préstamos de uso o comodato.*

La base será el importe anual que resulte de aplicar, en cada uno de los periodos impositivos de duración del préstamo, el 2 por 100 a la valoración del bien efectuada de conformidad con el artículo 8 de la presente norma foral, determinándose proporcionalmente al número de días que corresponda en cada periodo impositivo.

En el caso de que se trate de inmuebles para la realización de proyectos o actividades, se aplicará el 2 por 100 sobre el valor catastral, proporcionalmente al número de días que corresponda de cada periodo impositivo.

*Artículo 12. Justificación de los préstamos de uso o comodato.*

1. La aplicación de los incentivos fiscales exigirá la acreditación de la efectividad del préstamo de uso o comodato, mediante certificación expedida por la persona o entidad comodataria.

2. La certificación a que hace referencia el apartado anterior deberá contener, al menos, los siguientes extremos:

a) Nombre y apellidos o denominación social y número de identificación fiscal tanto de la persona o entidad comodante como de la comodataria.

b) Mención expresa de que la persona o entidad comodataria se encuentra incluida entre las contempladas en el artículo 4 de la presente norma foral.

c) Fecha en que se produjo la entrega del bien y plazo de duración del préstamo de uso o comodato.

d) Importe de la valoración del préstamo de uso o comodato.

e) Documento público u otro documento auténtico que acredite la constitución del préstamo de uso o comodato.

f) Destino que la persona o entidad comodataria dará al bien objeto del préstamo de uso o comodato.

SECCIÓN 3.ª Convenios de colaboración empresarial incentivados fiscalmente

*Artículo 13. Convenios de colaboración empresarial en proyectos o actividades de interés social.*

1. Se entenderá por convenio de colaboración empresarial en proyectos o actividades culturales de interés social aquel por el que las personas o entidades a las que se refiere el artículo 4 de la presente norma foral, a cambio de una ayuda económica o susceptible de valoración económica para la realización de un proyecto o actividad declarada de interés social, se comprometen por escrito a difundir, por cualquier medio, la participación del colaborador en dichos proyectos o actividades.

2. La base para la aplicación de los incentivos fiscales por convenios de colaboración empresarial se calculará con arreglo a lo dispuesto en el artículo 8 de la presente norma foral.

3. La difusión de la participación del colaborador en el marco de los convenios de colaboración empresariales definidos en este artículo no constituye una prestación de servicios.

EK\CV GAO-I-2019-00888

*14. artikulua. Lankidetza enpresarialeko hitzarmenen ondorioz jasotako laguntzen justifikazioa.*

1. Zerga-pizgarriak aplikatzeko, ezinbestekoa izango da lankidetza enpresarialeko hitzarmena benetan formalizatu dela frogatzea kultur mezenasgoaren onuradunak luzatutako ziurtagiria aurkeztuta.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den ziurtagirian alderdi hauek jaso beharko dira gutxienez:

a) Izen-abizenak edo sozietate izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai pertsona edo entitate onuradunarenak bai kolaboratzailearenak.

b) Kultur mezenasgoaren pertsona edo entitate onuraduna foru arau honen 4. artikuluan aurreikusitakoen artean dagoela dioen berariazko aipamena.

c) Lankidetza enpresarialeko hitzarmena benetan formalizatu dela frogatzen duen agiri publikoa edo bestelako agiri sinesgarria.

d) Lankidetza enpresarialeko hitzarmenaren ondorioz jasotako laguntzaren zenbatekoa eta berau noiz eta nola jaso izanaren xehetasun guztiak.

e) Jasotako laguntzari kultur mezenasgoaren onuradunak emango dion erabilera.

4. SEKZIOA. Zerga-pizgarriak

*15. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak.*

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek foru arau honen 8., 11. eta 13. artikuluetan hurrenez hurren aipatzen diren dohaintzen, maileguen edo lankidetza hitzarmenengatik izandako gastu kengarrien balioaren 100eko 35 kendu ahal izango dute zergaren kuotatik.

Artikulu honetan aipatzen den kenkariaren oinarriak ezingo du izan Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauak 90. artikuluko 2. apartatuan jasotzen duen muga baino handiagoa.

*16. artikulua. Sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak.*

1. Sozietateen gaineko zergaren zergadunek zerga onura hauek izango dituzte:

a) Zerga oinarria zehazteko garaian, foru arau honen 8., 11. eta 13. artikuluetan hurrenez hurren aipatzen diren dohaintzen, erabilera maileguen eta lankidetza hitzarmenengatik izandako gastu kengarrien baloraziotik ondorioztatzen diren zenbatekoak partida kengarritzat hartuko dira.

b) Horrez gain, zergadunek foru arau honen 8., 11. eta 13. artikuluetan hurrenez hurren aipatzen diren dohaintzen, erabilera maileguen eta lankidetza hitzarmenengatik izandako gastuen balioaren 100eko 20 kendu ahal izango dute zergaren kuota likidotik.

Letra honetan ezarritako kenkariari Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 67. artikuluan jasotzen diren arauak aplikatuko zaizkio, kontuan izanik, alabaina, kenkariaren aplikazioa autolikidazioa aurkeztearekin batera egin behar den aukera bat dela foru arau horren 128. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

2. Artikulu honetan arautzen diren zerga onurak ez zaizkie inola ere aplikatuko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei.

*Artículo 14. Justificación de las ayudas recibidas en virtud de los convenios de colaboración empresarial.*

1. La aplicación de los incentivos fiscales exigirá la acreditación de la efectividad del convenio de colaboración empresarial, mediante certificación expedida por la persona o entidad destinataria del mecenazgo cultural.

2. La certificación a que hace referencia el apartado anterior deberá contener, al menos, los siguientes extremos:

a) Nombre y apellidos o denominación social y número de identificación fiscal tanto de la persona o entidad beneficiaria como de la colaboradora.

b) Mención expresa de que la persona o entidad destinataria del mecenazgo cultural se encuentra incluida entre las contempladas en el artículo 4 de la presente norma foral.

c) Documento público u otro documento fehaciente que acredite la celebración del convenio de colaboración empresarial.

d) Importe de la ayuda recibida en virtud del convenio de colaboración empresarial y todos los detalles sobre cuándo y cómo fue recibida.

e) Destino que la persona o entidad destinataria del mecenazgo cultural dará a la ayuda recibida.

SECCIÓN 4.ª Incentivos fiscales

*Artículo 15. Contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas.*

Los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas tendrán derecho a deducir de la cuota del impuesto el 35 por 100 del valor de los donativos, donaciones, préstamos de uso o gastos realizados con derecho a deducción realizados en virtud de los convenios de colaboración, a que se refieren los artículos 8, 11 y 13, respectivamente, de la presente norma foral.

La base de la deducción a que se refiere este artículo no podrá exceder del límite previsto en el apartado 2 del artículo 90 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*Artículo 16. Contribuyentes del impuesto sobre sociedades y del impuesto sobre la renta de no residentes.*

1. Los contribuyentes del impuesto sobre sociedades gozarán de los siguientes beneficios fiscales:

a) Para la determinación de la base imponible, los importes en que se valoren los donativos, donaciones, préstamos de uso o gastos realizados con derecho a deducción en virtud de los convenios de colaboración, a que se refieren los artículos 8, 11 y 13, respectivamente, de esta norma foral, tendrán la consideración de partida deducible.

b) Además, tendrán derecho a practicar una deducción de la cuota líquida del impuesto del 20 por 100 del valor de los donativos, las donaciones, los préstamos de uso y gastos realizados en virtud de los convenios de colaboración, a que se refieren los artículos 8, 11 y 13 de esta norma foral.

A la deducción establecida en esta letra le resultarán de aplicación las normas establecidas en el artículo 67 de la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa, teniendo la consideración de opción que debe ejercitarse con la presentación de la autoliquidación a los efectos de lo dispuesto en el artículo 128 de la citada norma foral.

2. Los beneficios fiscales regulados en este artículo no serán de aplicación en ningún caso a los sujetos pasivos del impuesto sobre la renta de las personas físicas.

EK\CV GAO-I-2019-00888

3. Establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek zilegi izango dute aurreko 1. apartatuan adierazitako zerga onurak aplikatzea.

*17. artikulua. Beste zerga onura batzuk.*

1. Foru arau honen 8. artikuluan aipatutako dohaintzengatik dohaintza-emaileak lortzen dituen ondare irabaziak eta errenta positiboak salbuetsita egongo dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik, sozietateen gaineko zergatik eta establezimendu iraunkor bidez jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergatik, zerga horiei lotuta daudenean.

2. Foru arau honetan aurreikusitako dohaintzen, legatuen eta lankidetza enpresarialeko hitzarmenen ondorioz egiten diren doako eskurapenak salbuetsita egongo dira oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan.

*18. artikulua. Bateraezintasunak.*

Foru arau honetan arautuTako zerga onurak bateraezinak izango dira irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituen apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan zenbateko berberetarako ezarritakoekin.

*19. artikulua. Zerga onurak aplikatzeko baldintzak.*

Aurreko artikuluetan aurreikusitako zerga onurak aplikatzeko, kultur mezenasgoaren pertsona edo entitate onuradunek baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Behar diren ziurtagirien bidez, frogatu behar dute dohaintzak, legatua, erabilera mailegua edo lankidetza hitzarmena benetan egin direla eta, egiazki, interes sozialeko kultur proiektu edo jardueretara zuzendu dituztela.

b) Ziurtagirien edukia jakinarazi behar diote Zerga Administrazioari, zerga araudiak ezarritako eredu eta epeetan.

*20. artikulua. Elkarrekikotasuna.*

Foru arau honetan aurreikusten diren zerga onurak Estatuko eta beste lurralde historikoetako organo eskudunek beren kultur mezenasgoaren zerga pizgarriei begira interes sozialekotzat hartutako kultur eta jarduerei ere aplikatzekoak izango dira, baldin eta haiek onartua duten araudian beste hainbeste egiten bada foru arau honen arabera deklaratutako jarduera eta programekin.

*Lehen xedapen gehigarria. Mezenas izaeraren aitortza publikoa.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak behar diren tresnak ezarriko ditu mezenasgoaren praktika saritzeko, horrelako ekintzen balio soziala sustatuz, ekimen horiei prestigioa eta ikusgarritasuna emanez, eta mezenasgoaren bitartez kulturaren alde egiten duten pertsona fisiko edo juridikoen lan filantropikoa publikoki aitortuz.

Orobat, anonimotasuna bermatuko die kulturari laguntzen diotela ezagutaraztea nahi ez duten pertsona edo entitateei.

*Bigarren xedapen gehigarria. Kultur mezenasgoa errazteko aplikazio informatikoa.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak aplikazio informatiko bat garatuko du kultur mezenasgoa errazteko, halako moduz non, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jarriko den esteka bat erabilita, posible izango baita foru arau honekin bat interes sozialekotzat hartzen diren jarduerak edo proiektuak garatzen dituzten pertsona edo entitateei dohaintzak egitea modu elektronikoan.

3. Los contribuyentes del impuesto sobre la renta de no residentes que operen mediante establecimiento permanente podrán aplicar los incentivos fiscales previstos en el apartado 1 anterior.

*Artículo 17. Otros beneficios fiscales.*

1. Estarán exentas las ganancias patrimoniales y las rentas positivas de la persona o entidad donante que se pongan de manifiesto con ocasión de las donaciones a las que se refiere el artículo 8 de la presente norma foral, que estén sujetas al impuesto sobre la renta de las personas físicas, al impuesto sobre sociedades o al impuesto sobre la renta de no residentes para contribuyentes que operen mediante establecimiento permanente.

2. Estarán exentas en el impuesto sobre sucesiones y donaciones las adquisiciones a título gratuito que se produzcan como consecuencia de las donaciones, legados y convenios de colaboración empresarial previstos en esta norma foral.

*Artículo 18. Incompatibilidades.*

Los beneficios fiscales regulados en esta norma foral serán incompatibles, para los mismos importes, con los establecidos en la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

*Artículo 19. Requisitos para la aplicación de los beneficios fiscales.*

La aplicación de los beneficios fiscales previstos en los artículos anteriores estará condicionada a que las personas o entidades destinatarias del mecenazgo cultural cumplan los siguientes requisitos:

a) Que acrediten, mediante las correspondientes certificaciones, la realidad de las donaciones, del legado, del préstamo de uso o del convenio de colaboración, así como su efectivo destino a proyectos o actividades culturales de interés social.

b) Que informen a la Administración tributaria, en los modelos y en los plazos establecidos en la normativa tributaria, del contenido de las certificaciones expedidas.

*Artículo 20. Reciprocidad.*

Serán de aplicación los beneficios fiscales previstos en esta norma foral a las actividades y programas culturales declarados de interés social por los órganos competentes de los Territorios Históricos y del Estado, a efectos de sus respectivos beneficios fiscales al mecenazgo cultural, siempre que se reconozcan de forma recíproca los declarados según lo previsto en esta norma foral.

*Disposición adicional primera. Reconocimiento público de la condición de mecenas.*

La Diputación Foral de Gipuzkoa establecerá los instrumentos adecuados a fin de premiar la práctica del mecenazgo, ayudando a la revalorización social de estas acciones, prestigiando y dando visibilidad a estas iniciativas y reconociendo públicamente la labor filantrópica de las personas físicas o jurídicas que a través del mecenazgo favorezcan la cultura.

Así mismo, garantizará el anonimato de aquellas personas o entidades que no deseen hacer pública su contribución a la cultura.

*Disposición adicional segunda. Aplicación informática en apoyo del mecenazgo cultural.*

La Diputación Foral de Gipuzkoa desarrollará una aplicación informática que facilite el mecenazgo cultural, de manera que, a través de un enlace desde la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, se puedan realizar de forma electrónica donaciones a las personas o entidades que desarrollen actividades y proyectos que hayan sido declarados de interés social con arreglo a esta norma foral.

EK\CV GAO-I-2019-00888

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak aplikazio informatiko horren ezaugarriak eta funtzionaltasunak arautuko ditu foru agindu bidez.

Aplikazioak ahalbidetuko du Foru Ogasunaren aurrean baliagarria izango den ziurtagiria eskuratzea haren bitartez foru arau honetan aurreikusitako onurak eskatzeko.

*Hirugarren xedapen gehigarria. Mezenasgoari buruzko kanpaina.*

Foru arau honen irismena herritarrei jakinarazteko eta dakartzan zerga onurak ezagutarazteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, behin hura onetsita, informazio kanpaina bat egingo du, egoki jotzen dituen baliabideekin.

*Azken xedapenetako lehena. Irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Araua aldatzea.*

Aldaketa hauek sartzen dira irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan:

*Bat.* III. tituluari V. kapitulua gehitzen zaio, honela dioena:

«V. kapitulua. Zerga onurak aplikatzeko baldintza komunak.

32. artikulua. Zerga onurak aplikatzeko baldintza komunak.

Titulu honetan aurreikusitako zerga onurak aplikagarriak izan daitezen, kultur mezenasgoaren entitate onuradunek ezinbesteko izango dute jasotako dohaintza eta ekarpenen berri ematea Zerga Administrazioari, zerga araudian ezarritako eredu eta epeetan.»

*Bi.* Beste xedapen gehigarri bat gehitzen da, hamahirugarrena, honela dioena:

«Hamahirugarren xedapen gehigarria. Foru arau honetako zerga onuren bateraezintasuna.

Foru arau honen artikuluetan eta haren xedapen gehigarrietan arautzen diren zerga onurak bateraezinak izango dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan kultur mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriak arautzen dituen otsailaren 11ko 2/2019 Foru Arauak zenbateko berberetarako ezarritakoekin.»

*Azken xedapenetako bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren foru araua aldatzea.*

Aldaketak sartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 90. artikuluko 1. apartatuan, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Zergadunek irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga erregimena eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriak arautzen dituen foru arauan aurreikusten diren kenkariak eta kultur mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoan ezarritakoak aplikatu ahal izango dituzte.»

*Azken xedapenetako hirugarrena. Arauak emateko ahalmena.*

Diputatuen Kontseiluak beharrezkoak diren xedapenak eman ahal izango ditu foru arau hau garatu eta aplikatzeko.

*Azken xedapenetako laugarrena. Indarrean jartzea.*

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean. Guztiarekin ere, kultur mezenasgoari aplikatzeko bertan arautzen diren zerga-pizgarriek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako izango dute eragina.

El diputado foral o la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas regulará mediante orden foral las características y funcionalidades de la mencionada aplicación informática.

La aplicación habilitará un sistema que permita la obtención del correspondiente certificado acreditativo y con validez ante la Hacienda Foral a efectos de obtener los beneficios previstos en esta norma foral.

*Disposición adicional tercera. Campaña de mecenazgo.*

A fin de dar a conocer a la ciudadanía el alcance de esta norma foral y los beneficios fiscales que conlleva, la Diputación Foral de Gipuzkoa realizará, tras su aprobación, y con los medios que estime necesarios, una campaña informativa.

*Disposición final primera. Modificación de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.*

Se modifican los siguientes preceptos de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo:

*Uno.* Se adiciona un capítulo V al título III con el siguiente contenido:

«Capítulo V. Requisitos comunes para la aplicación de los beneficios fiscales.

Artículo 32. Requisitos comunes para la aplicación de los beneficios fiscales.

La aplicación de los beneficios fiscales previstos en este título estará condicionada a que las entidades destinatarias del mecenazgo cultural informen a la Administración tributaria, en los modelos y en los plazos establecidos en la normativa tributaria, de las donaciones y aportaciones recibidas.»

*Dos.* Se adiciona una disposición adicional decimotercera, con el siguiente contenido:

«Disposición adicional decimotercera. Incompatibilidad de los beneficios fiscales de esta norma foral.

Los beneficios fiscales regulados en esta norma foral, tanto en su articulado como en sus disposiciones adicionales, serán incompatibles, para los mismos importes, con los establecidos en la Norma Foral 2/2019, de 11 de febrero, de incentivos fiscales al mecenazgo cultural en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.»

*Disposición final segunda. Modificación de la Norma Foral del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.*

Se modifica el apartado 1 del artículo 90 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que queda redactado en los siguientes términos:

«1. Los contribuyentes podrán aplicar las deducciones previstas para este impuesto en las normas forales reguladoras del régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo y de incentivos fiscales al mecenazgo cultural.»

*Disposición final tercera. Habilitación normativa.*

Se faculta al Consejo de Gobierno Foral para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de esta norma foral.

*Disposición final cuarta. Entrada en vigor.*

La presente norma foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, si bien los incentivos fiscales aplicables al mecenazgo cultural surtirán efectos para los periodos impositivos que se inicien a partir del 1 de enero de 2019.

EK\CV GAO-I-2019-00888